

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIt) 2012ko 3. hiruhilekoa

Euskadiko txikizkako sektorearen salmentek % 1,1eko beherakada ezagutu dute 2012ko hirugarren hiruhilekoan

Zerbitzuguneak kanpo utzita, % 0,7ko beherakada ezagutu dute salmentek

Eustat-ek emandako datuen arabera, Euskadiko txikizkako merkataritzaren sektorean % 1,1 murriztu dira salmenta nominalak 2012ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko aldi berdinarekin alderatuta.

Urte arteko tasari erreparatuz, sektoreko salmentek, zerbitzuguneak kanpo utzita, % 0,7ko murrizketa erregistratu dute.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 3,1eko hazkunde nominala lortu du salmenta-indizeak, urtaroko efektuak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. 3. hiruhilekoa. 2012(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-1,1	3,1	-3,5	0,2
Araba	0,0	0,5	-3,9	-1,7
Bizkaia	-1,5	3,4	-3,4	-0,6
Gipuzkoa	-1,0	3,9	-3,5	2,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	0,7	1,2	-1,9	0,4
Elikagaietan espezializatuta	4,1	1,9	0,8	1,4
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-0,6	-0,3	-3,5	-0,9
Beste produktuak	-1,9	5,3	-2,8	3,4
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-6,3	1,2	-5,9	0,0
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-0,5	3,3	-0,6	3,6
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	2,3	7,0	-1,1	1,3
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-0,2	5,8	-2,6	0,4
Automoziorako erregaia	-2,2	-4,7	-11,2	-5,0
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-0,7	3,5	-2,4	2,1
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-4,4	-1,2		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Sektoreka, eta 2011ko aldi berdineko datuekin alderatuta, 2012ko hirugarren hiruhilekoan elikagaigintzaren sektorean % 0,7ko hazkundera lortu dute salmenta nominalek, baina gainerako produktuen txikizkako merkataritzak % 1,9ko murrizketa

ezagutu du, eta % 2,2koa izan da automobilgintzako erregaiaren salmentak erregistratu duen beherakada.

Elikagaigintzaren txikizkako merkataritzaren barruan, % 4,1eko hazkundera ezagutu du merkataritza espezializatuak; aitzitik, % 0,6koa da merkataritza ez-espezializatuak — elikagaigintzaren sektorea da nagusi— ezagutu duen beherakada. Gainerako produktuen txikizkako merkataritzari dagokionez, gora egin du bestelako kontsumo-ondasunen merkataritza espezializatuak (% 2,3), eta behera egin da aztertutako gainerako sektoreetan. Pertsonaren ekipamenduetan espezializatutako sektoreak % 6,3ko murrizketa ezagutu du; % 0,5ekoa da etxeko ekipamenduetan espezializatutako sektoreak ezagutu duen beherakada, eta bestelako produktuen txikizkako merkataritza ez-espezializatuak % 0,2ko murrizketa ezagutu du.

Lurralde historikoka, 2012ko hirugarren hiruhilekoan Bizkaian ezagutu da beherakadarik handiena txikizkako sektoreko salmenta nominalei dagokienez. Hain zuzen ere, % 1,5ekoa izan da urte arteko murrizketa Bizkaian. Gipuzkoan % 1,0 gutxiagotu dira salmenta nominalak eta Araban, azkenik, egonkor mantendu da indizea (% 0,0).

Prezio konstanteetan, hau da, prezioen efektua kanpoan utzita, txikizkako merkataritzaren salmentek % 3,5eko beherakada ezagutu dute hirugarren hiruhilekoan.

Bestalde, txikizkako merkataritzaren salmentek, zerbitzuguneak kanpo utzita, % 2,4ko beherakada erreala (prezio konstanteak) ezagutu dute, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz.

Bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, 2012ko hirugarren hiruhilekoan % 0,2ko gorakada ezagutu dute Euskadiko txikizkako merkataritzaren salmenta errealek, urtaroko efektuak kanpoan utzita.

Bestalde, 2011ko hiruhileko berdinarekin alderatuz, elikagaigintzaren txikizkako merkataritzaren beherakada erreala % 1,9koa izan da eta % 2,8koa izan da gainerako produktuen txikizkako merkataritzak ezagutu duen beherakada erreala; eta automobilgintzako erregaiaren txikizkako salmentek % 11,2ko beherakada ezagutu dute oraingoan.

Elikagaigintzaren txikizkako merkataritzari dagokionez, elikagaigintzan espezializatutako merkataritzaren urte arteko bilakaera positiboa izan da eta % 0,8ko gorakada ezagutu du, baina txikizkako merkataritza ez-espezializatuak, elikagaigintzaren sektorean nagusi denak, % 3,5eko beherakada ezagutu du. Gainerako produktuen merkataritzari dagokionez, sektore guztiek ezagutu dute beherakada. Pertsonaren ekipamenduetan espezializatutako sektoreak % 5,9ko murrizketa ezagutu du; % 0,6koa da murrizketa etxeko ekipamenduetan espezializatutako sektorean; % 1,1 gutxitu da bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatutakoa; eta denda ez-espezializatuen salmentek % 2,6ko beherakada ezagutu dute, guztia kopuru errealetan.

Hiru lurralde historikoetan egin da atzera, salmenten kopuru errealei erreparatuz: Araban % 3,9 murriztu dira salmentak, % 3,5 Gipuzkoan eta % 3,4 Bizkaian.

Euskadi osoan txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duen pertsona kopuruak % 1,2ko murrizketa ezagutu du 2012ko hirugarren hiruhilekoan, bigarren hiruhilekoarekin alderatuz.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEKo Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua